

Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

Ama Saindua?



BRANDEISSPECIALCOLLECTIONS.BLOGSPOT.COM



WWW.ACESHOWBIZ.COM

Ezkerrean, Joana Ama Sainduaren irudia, *Nurembergeko Kronika* edo *Liber Chronicarum* inkunablean jasoa (XV. mendearen amaiera). Eskuinean, Joanaren pertsonaia Sönke Wortmann zuzendariaren *Pope Joan* (2009) filmean.

ERROMA, 855. Emakumezko batek aitasantutza katolikoa eskuratu zuen 857. urtera arte, hau da ofizialki Benedikto III.aren aldiari dagozkion urteetan. Batzuek diote Benedikto III.a bera emakumea zela eta beste batzuek 872. eta 882. urteen artean kokatzen dute Ama Sainduaren agintaldia, Joan VIII.aren aldiari, alegia; beharbada, ustezko Ama Saindua Joana zuelako izena.

Joana 822an jaio omen zen, Ingelheim am Rhein herrian, egungo Alemanian. Aita elizgizona izanik, garai-ko emakumeek debekatua zuten erlijio eta kultura heziketa jaso zuen. Ikasten jarraitu ahal izateko, kopista gisa hasi zen lanean, Johannes Anglicus gizonetzko izenarekin.

Lanbideari esker Konstantinoplara, Atenasera eta Frankoen Erresumara bidaiatu ondoren, 848. urtean Erromara iritsi zen, beti ere gizonetako identitatean babestuta. Kurian Joanaren jakinduriaren berri bazuten nonbait, eta Leon IV.ak gaztea ezagutu nahi izan zuen. Berehala Aita Sainduaren nazioarteko aferen idazkari bihurtu zen. Leon IV.a hil eta gero Joana bera izendatu omen zuen

ondorengo; Benedikto III.a edo Joan VIII.a izena hartu zuen.

Handik bi urtera Joanak harreman sexualak izan zituen Saxoniako enbaxadore Lanbertorekin eta haurdun geratu zen. Prozesio baten erdian erditzearen uzkurdurak sentitzen hasi zen eta hantxe bertan, eliztarren aurrean, erditu zen. Jean de Maillyren arabera, jendetza suminduak harrika hil zuen Joana; Martin Poloniarraren testuetan, aldiz, Ama Saindua erditzeak berak hil zuen.

Istorio hau egiaztatzen duen dokumenturik ezean, elezaharren esparruan utzi behar da. Aldiz, IX. mendeko Aita Saindu sortari buruzko informazio oso zehatza gorde da eta Joana Ama Sainduaren aipamenak askoz geroagokoak dira.

Joan VIII.ak Konstantinoplako Elizarekiko izan zuen jarrera epela eta ahulezia kritikatzeko, etsaiek "Joana Ama Saindua" ezizena ipini omen zioten. Geroago, Zisma Nagusiaren garaian, hainbatek Aita Saindua kargugabetzeko eskubidea aldarrikatzeko erabili zuen istorioa. Hala, elezahar ederraren oinarrian boterea lortzeko borroka ilunak leudeke.

Arrastoak

Algortako Portu Zaharra aztertuko dute

ALGORTAKO Portu Zaharraren ondarea nabarmentzeko eta, oro har, Getxok itsasoarekin izan duen harremanean oinarrituta hainbat ekintza garatzeko asmoz, Getxoko Udalak Eusko Ikaskuntzara jo zuen iaz.

Bi erakundeok iritsitako akordioaren arabera, apirilera-ko Eusko Ikaskuntzak analisia eta diagnostiko egin eta proiektuaren lan ildoak proposatuko ditu. Eta ondoren, lan ildo horiek garatu eta ekintza zehatzak finkatuko dituzte.

Horrez gain, proiektuaren barruan, Getxoko itsasoari lotutako lanbide zaharrak ere aztertuko dituzte.



WWW.BASQUEWAVES.COM

Algortako Portu Zaharra, Getxo, Abra eta itsasoaren arteko harremanaren ikurra. Eusko Ikaskuntzak aztertuko du.